

EUSKARA ETA KIROLA DONOSTIAN

Gaurko gizartean, interes handia eragiten du kirolak, eta euskarak ere bai, balio bat delako.

Balioa da, dakitenentzat eta ez dakitenentzat; balio soziokulturala, pertsonala, identitarioa eta familia-balioa. Gainera, bertako komunikazio-hizkuntza da, eta donostiarrek, bereziki gazteek, kirola euskaraz egiteko aukerak nahi dituzte.

Entrenamenduak euskaraz behar dituzte horretarako, hizkuntza-paisaia, komunikazioa, giro edota erreferente euskaldunak; eta, orriotan, **hiriko kirol entitateek euskarak eta kirolak elkarrekin jokatzeko erabiltzen dituzten baliabideak aurkituko dituzu.**

DONOSTIAKO UDALA, EUSKARA ZERBITZUA

EKIE PROGRAMA

EKIE euskarak eta kirolak elkarrekin jokatzeko

EKIE PROGRAMA euskarak eta kirolak elkarrekin jokatzeko

klubentzako baliabideak



Bat egin!

Entrenamenduetan, partidatan,
hirugarren denboretan, aldageletan...

Indartu euskara zure inguruan

Baliabide hauek eskuratzeko, galdetu

EKIE bilerak eta tailerrak

Edukiak: hizkuntza-egoera ulertzeko azalpenak, euskararen abantailak, klubetako kideen garrantzia, egokitutako ariketa praktikoak. Klubetako zuzendaritza batzordeentzat, entrenatzaileentzat, langileentzat...

KEES metodologia

Entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzeko baliabidea da. Entrenatzaileentzako baliabidea da hau.



Abiatze planak

Euskararen erabilera indartzeko urrats nagusiak biltzen dituzte, eta hizkuntza normalizazio planekin hasteko aukerarik ez duten kirol klubei eskaintzen zaizkie.

Euskara Zerbitzuan

K a r t e l a k



Kirol modalitateen hiztegiak



Ohiko hiztegiak, horma-hiztegiak...
Galdetu Euskara Zerbitzuan

udala_euskara@donostia.eus

Euskaraz ez dakitenentzako jarraibideak

Euskararen presentzia zergatik, zertarako eta nola handitu jakiteko.

Musika zerrendak

Euskarazko musika aukera handia dago, eta bidelagun ezin hobea da musika, giroa euskalduntzeko, kirol jardunean eta ospakizunetan.

Itzulpenetarako eta zuzenketetarako laguntza

Hedapen soziala izango duten testuak

Euskara ikasteko ikastaro orokorrak eta xede berezikoak

Informazioa ematen da ikastaroen eskaintzari buruz, dirulaguntzak, etab



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara